

# ahuakatearen zaintzarako gida

MAITANE PEREZ

BOOKTEGI

E  
I  
k  
a  
r  
r  
I  
r  
a  
k  
u  
r  
r  
i  
z





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

MAITANE PEREZ

ahuakateran  
zaintzarako gida

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I r a k u r r i z

## AHUAKATEAREN ZAINZARAKO GIDA

2022, urtarrilak 4 | [Argazkiak](#), [Bideoak](#) | [35 iruzkin](#)

- [Ahuakatea](#)
- [Lurra](#)
- [Tenperatura](#)
- [Eguzki arqia](#)
- [Ureztatzea](#)
- [Birlanaketa](#)
- [Ongarria](#)
- [Kimaketa](#)
- [Ohiko izurrite eta qaixotasunak](#)
- [Sasoiazen arabeko neurriak](#)
- [Ohiko galderak](#)

Zaindu. Hori izan da X-ri esan dion azkeneko gauza. X-k irakurri duen azken mezua. Momentuz. Zaindu zaitez, esan dio, ardura bere gainetik kenduz, berak zainduko ez duelakoan, urrunduko delakoan, nahiz eta hori oraindik seguru ez jakin. X-ri haren burua zaintzeko eskatu dio, erregutu dio ia (eskerrak idatzizko mezuetan tonua nabaritzen ez den), egunen batean izkina batean botata topatuko ote duten beldur balitz bezala, ospitaletik azkenekotan dagoela esanez deituko dutenaren beldur balitz bezala. Ez da horrelakorik gertatuko. Beldur irrazionala omen da, baina bada. Irudimen gehiegi izatearen ordaina.

Ez lukete bera deituko, gainera. Ospitaletik edo gorputegitik, ez lukete bera deituko. Horregatik esan dio zaintzeko. Horregatik eta hainbestetan ahora datorkion hitz horri zentzua emateko. Zentzu bat, bederen. Horregatik eta berak ere ez dakielako bere burua nola zaindu. Mezu hori bidali ondoren biriken artean irekiko zaion hutsunea nola kudeatu jakingo ez duelako. Horregatik esan dio zaintzeko X-ri. Zaindu. Eta disfrutatu.

Zure interesekoa ere izan daiteke: [Nola ernamuindu ahuakate bat.](#)

## ***ahuakatea***

Asuntoa da: ahuakateak ereinduta izan nahi ote du? Hau da, ahuakateak ez luke nahiago izango libre eta bere kaxa hazi urrutiko lur batean, nork daki, beste zelai askoren artean galdutako zelai txiki batean, edo sumendi artean, edo eremu bat nondik itsasoa ikusten den, edo sute baten ondoren berpizten ari den landa batean? Asuntoa da A-k ez dakiela seguru ahuakateak leku horietan haz daitezkeen, baina norbaitek aukera eman ote die? Norbaitek galdetu ote dio ahuakateari etxea txukuntzeko beti musika berdina jartzen duen emakume baten egongelako loreontzi batean egon nahi ote duen? Edo beste ehunka ahuakatez betetako lerro zuzen baten erdian, negutegi baten barruan, bere gainean ongarrri kimikoak botatzen dituen makina baten azpian, egon nahi ote duen? Ez. Inork ez dio ezer galdetu ahuakateari. Asuntoa da guk erabaki dugula ahuakatea zaintzea. Arrainak edo orkideak zaintzen ditugun bezala. Ama edo bikotekidea zaintzen dugun bezala. Berdin berdin. Asuntoa da ez dakigula ahuakateak zaindua izan nahi ote duen. Eta agian galdetu beharko geniokeela lehendabizi, gure etxean hazten hasi aurretik.

*Persea amerikanoa, arrunki ahuakateondo deitua. 12 metroak gainditu ditzake, baina loreontzian tamaina askoz txikiagoa hartuko du. Bere hazkuntzak pazientzia handia eskatzen du: urte asko itxaron beharko dira loreontziko ahuakateondo batek fruiturik emateko. Baina itxaronaldiak merezi du, dudarik gabe.*

## ***lurra***

Zaintzeko eskatzeko (ia erregutzeko) mezua bidali ondoren, sakelakoa itzali du. Eskuetan izan du minutu batzuez, eta berriro piztu ala ez zalantzatan egon da. Baina ez du piztu. Mahaiaren gainean utzi du, eta dutxara joan da. Ez daki X-k mezua erantzungo ote dion. Seguruenik ezetz, beste gauza batzuetan dagoelako, eta ez duelako ezer berezirik izango erantzuteko. Eskertuko diola badaki. Ondoan dagoela sentitzea gustatzen zaiola badaki. Eta irribarre egingo duela bere zaindu hori irakurtzerakoan, nahiz eta gainetik besterik ez duen irakurriko. Baina ez duela izango erantzuteko ezer. Hori ere badaki. Eta ondo dago.

Oso ezberdinak dira X eta A. Eta oso ezberdinak izaten jarraituko dute beti, orain arte oso ezberdinak izan diren bezala. Ezberdinak dira funtsean eta odolean, denetan. Eta A-k hori erraztasunez pentsatzen duen arren, ez du hain erraz onartzeko gaitasunik, edo gogorik, edo ausardiarik.

Mezua bidali ondoren biriken artean ireki zaion hutsune horrek mina ematen dio, eta dutxak ez dio mina kentzen, entretenitzen laguntzen badu ere. Bularra arakutzen du hutsunea ulertu nahian, xaboitzen du, laztantzen du. Kezka omen da, hori pentsatzen du, kezkatuta dagoela X-rengatik, baina ez dakiela zergatik. Ez dakiela nondik datorkion kezkatzeko behar hori, zertaz kezkatu ere ez dakienean. Konturatzen da kezka hori benetan X-rengatik edo bere buruarengatik ote den ere ez dakiela, X-ri gertatu dakioken horrek, dena delakoak, berarengan ere eragina izango duelako, agian, seguruenik. Eta kezka datorkiola ez duelako eztabaidatu nahi, eta ez duelako kezkatu bizi nahi. Ez duelako beste batengatik kezkatu bizi nahi. Horregatik kezkatzen dela.

Dutxatik atera, eta sakelakoa oraindik ez piztea erabaki du. Ohe gainean etzan da, biluzik, aspaldi aldatu ez dituen maindireen gainean. Ile bustia aurpegi gainean geratu zaio, betiko xanpuaren usaina sudurrean, eta arnasa sakon hartu du, biriken arteko hutsunea oxigenoz bete nahian. Eta pentsatu du aspaldian ez zegoela etxean, sustraiak galduak omen dituela, azkenaldian hegan ibili izan balitz bezala, alde batetik bestera lanagatik, eta X maizago ikusteagatik. Eta konturatu da oinen atzealdeko gogorguneak leunago dituela orain, oin nekatuak berpizten ari zaizkiola pixkanaka. Eta erabaki du etxean geratuko dela, eta ortozik ibiliko dela, aspaldian egiten ez duen bezala.

*Substratuak pixka bat azidoa izan behar du, 5 eta 7 arteko pHarekin. Zohikatz, [koko-zuntz](#), zizare-humus eta perlita nahasketa bat oso ondo datorkio landare honi.*

## ***temperatura***

N-k atera zuen gaia, duela aste batzuk. Ikasgelan umeekin ahuakate bat landatu zuela esan zien lagunei, eta oso erraza izan zela. Ahuakatearen hezurrari txotx batzuk sartu zizkiotela, eta ur baso batetan jarri zutela. Eta oso ondo ikusi zutela sustraiak nola ateratzen zitzaizkion.

Lagun gaua zen, beroa egiten zuen eta garagardoak edaten zituzten, bakoitzak bere modura. Moskitoak uxatzen zituzten bitartean N-k kontatu zien esperimentu ederra izan zela eta umeak oso pozik zeudela landarea zaintzen, momentuz.

A-k askotan izan du ahuakatearen landatze horren berri, jendea entretenitzen omen dela afaldutako ahuakatearen hezurrari txotxak sartzearekin eta uretan uztearekin sustraiak nola ateratzen zaizkion ikusteko, sustraiak nola garatzen diren ikusteko. Eta entzuna dauka halaber landarea haztea lortu arren oso zaila dela fruiturik ematea. Eta pentsatu zuen ez ziola zentzurik ikusten, batez ere bere kasuan, landareak zaintzeko oso denbora gutxi izaten duelako beti, edo, egia esanda, landareak zaintzea ahazten zaiolako beti.

Gaia aspaldian aldatua bazuten ere, A-k pentsatu zuen landare hori zaintzea, konkretuki landare hori zaintzea, zaintza ote den, fruituaren esperoan zaintzen dutenek haien onurarako zaintzen dutelako, eta ez landarea zoriontsu izan dadin, zoriontsu izan ahal bada. Eta bere buruari galdetu zion zaintza egoista izan daitekeen, ozenki galdetu zien lagunei, ea zaintza benetan norentzat egiten den, eta garagardo beroari zurrutada bat eman zion, besoan ziztatu berri zuen moskitoa eskuarekin akatuz.

*Ahuakateak ez du hotza jasaten. 10 gradu beherako zonaldeetan barruan kokatu beharko duzu, neguko hotzaz babesturik. Aldi berean ezin du 30 gradutik gorako temperatura jasan, ezta eguzki zuzen oso indartsua, hostoak erreko dizkiona.*

## *eguzki argia*

Ohea eskuekin lisatu, etxeko arropa jantzi eta legatza izozkailutik atera du. Mugikorra piztea erabaki du, badaezpada. Ez dauka mezurik erantzuteko gogorik, eta gainerik bakarrik irakurri ditu amaren hiru eta lagun taldeko beste hainbat. X-k ez du erantzun. Ez da beharrezkoa. Gustura egongo da, berak eskatu bezala. Disfrutatu. Hitz horri omen egiten. Aurreko hitzari ordea, nork daki. Zaindu. Agur edo gero arte bezala esaten den hitza da, besterik ez, egunero entzuten dena, edukaziozko forma, ez nahitaez bihotzetik ateratako benetako eskaera, ez nahitaez biriken artean irekitzen den hutsunearen forma berbala.

Ordenagailu aurrean eseri da, eta Google-en bilatzen hasi da, konfiantza emango dion webgune baten bila. Nekatuta sentitu da, eguzkia jaisten hasten den ordu horietan maiz gertatzen zaion bezala begiak lanbrotuta, eta orrialde batetik bestera saltoka ibili da zeini kasu egin eta zeini ez erabaki ezinean. Gauzak nola egin ez jakiteak urduri jartzen du eta informazioak gainerik eta gaizki irakurtzen eman du ordu erdi luze. Kakalardo baten irudia ikusi du. Loreontzi bateko lurraren gainean tantak askatzen dituen tanta-kontagailu baten argazki bat. Beldar talde bat. Abisu ezberdinak, aholkuak, ardurak. Eta kulpak. Aurreko pausoan huts egin baduzu...

Antibirusa ireki zaio tupustean. Topatutako informazioa nahikotzat emanda, edo gehiago bilatzeko indarririk gabe sentitu delako, pantaila zaharrari atsedena eman dio. Ondoren legatza prestatzen hasi da, bero horrekin zerbait freskoagoa jan beharko lukeela pentsatzen duen bitartean. Leihoak ireki ditu arratseko usaina etxean sar dadin. Sargori dago, baina ez du euririk egingo.

Legatza labean sartu, eta sofan eseri da, amaren mezuei erantzuteko.

*Ahuakateari eguzkiak eman behar dio. Argi nahikorik jasotzen ez badu bere hazkuntza kaltetuko da eta bere hostoek ez dute kolore distiratsurik izango.*

*Adi! Ezagutu zenbat argi jasotzen duten zure landareek benetan gure app berriarekin! Deskargatu [hemen](#).*



X-ren herrian euria ari du.

Askotan ari du euria X-ren herrian. A-renean ordea aspaldian ez dago euri-jasarik. Diferentea da hori ere, nahiz eta oso gertu egon herri bat bestearengandik. Edo nahiko gertu. Edo urruti, egunaren arabera. Diferentea da hezetasuna, hezurretan sartzen dena, hezurrak modu batean edo bestean osatzen dituen. Hezetasun desberdinarekin eraikita daude A-ren eta X-ren gorputzak. Hezurak eta odola.

X-k hezetasuna harekin dakar A bisitatzen duen bakoitzean, A maitatzen duen bakoitzean. Umeltasuna zabaltzen da X-k eta A-k gaua elkarrekin pasatzen dutenean, edo elkarrekin bazkaltzen dutenean, edo goiz erdian sofan etzaten direnean. Orduan bai, hezetasuna konpartitua bihurtzen da, bien hezurretan sartzen da, bien odoletan. Hezetasun horretan hazten da bizitza, horretaz elikatzen dira basapiztiak, bertan ugaltzen dira zizareak, edaten dute txoriek. Hezetasun horretan badakite elkarrekin egon nahi dutela eta egongo direla, nolabait, bukaera arte. Horregatik A-k ez ditu maindireak aldatu azken egunetan, hezetasuna birikentzako ona delako, edo agian ez, baina ona delako berarentzat, bere birika lehorrentzat.

X-ren herrian euria ari du, eta A-k badaki etortzen den hurrengoan, goiz, oso goiz, esnatzen duen hurrengoan, haren herriko umeltasun hori ekarriko diola opari, basoko animalia guztiak ekarriko dizkiola opari, basoko basa guztia, zeruko tanta guztiak, lainoaren babesa ekarriko diola opari. X-ren azal hezeak besarkatuko duela, bere azal lehorrekin talka eginez. Eta irribarre egin du egongelako mahaiaren azpian X-ren galtzerdi bat topatzerakoan, eta erabaki du laster oportetara joango dela, egun gutxi batzuk, azala heze bilakatuko dion lekuren batera. Eta azalak berdinduko dituztela, barre artean, une batez, une txiki batez soilik.

*Ur soberakin batek sustraiak usteltzea eragin dezake. Horregatik lurra ondo drainatuta egon behar du, eta loreontziak zuloak izan behar ditu. Hobe da ura faltan izatea gehiegi ureztatzea baino. Hala ere, hostoen ertzak marroi bihurtzen badira, lehortzen ari denaren seinale da. Kasu horretan gehiago ureztatu.*

Klikatu hemen: [Noiz ureztatu landareak.](#)

## ***birlandaketa***

Kontua da ahuakatea haztea erabaki zuela. Kontua da badakiela ia seguru hil egingo zaiola ahuakatea, baina hala ere saiatu nahi duela. Esperientzia hori bizi, esperientzia traumatikoa edo pozgarria izango den ez dakien arren. Probatu nahi du, ahalegindu (eta lana prokrastinatzeko beste aitzakia bat izan, bide batez). Arriskatu. Ardura hartu.

Lurraren pHa neurtuko du, zuloak egingo dizkio loreontziari, zizare-humusa egingo du (edo Amazonen erosiko du), eta, hostoen ertzeek marroi kolorea hartzen badute, gehiago ureztatuko du. Hazten doan heinean, haztea lortzen badu, loreontziz aldatzen joango da, geroz eta espazio gehiago emanaz etxe txiki horretan. Etxearen izkinarik eguzkitsuenean jarriko du landarea, nahiz eta etxea oso eguzkitsua ez izan, nahiz eta etxearen izkinarik eguzkitsuena ere nahiko iluna izan. Berak argituko du, topatuko du argitzeko modua. Agian abestu ere egingo dio, hori inon irakurri ez badu ere, agian abestuko diola erabakiko du, hartzen duen itxuraren arabera. Agian ahotsarekin argitu ere egingo du, hori pelikularen batetan ikusi du noizbait. Ardura hartuko du. Landare exotikoa zainduko du, nahiz eta ez jakin zaintzeko gai izango den ala ez, nahiz eta ez jakin landareak zaindua izan nahi duen ala ez, nahiz eta ez jakin landarearengatik edo bere buruarengatik egingo duen. Landare batek jar dezakeen erresistentziaren gaineratik pasatzea erraza da. Eta ez dago eztabaidarik. Zainduko zaitut eta listo. Onartu, ala hil.

*Udaberrian edo udazkenean birlandatu ahuakatea, tenperaturak epelak direnean. Kontuz izan sustrai delikatuak ez mintzeko birlandaketan zehar, landarea moda arrakastatsuan hazteko.*

## ***ongarria***

Izan dituen arrain guztiak hil egin zaizkio, beti. Aspaldian ez dauka arrainik, agian hogeita hamar urte edo pasa dira azken arraina izan zuenetik, txikitan, gurasoen etxean. Arrainontzi zikin bat gogoratzen du, likenek paretak hartuta, substantzia koipetsuak uretan igeri, nebak eta berak esku zikinak uretan sartzen zituztelako arrainak aztoratu nahian, seguruenik. Gogoratzen du arrainak ikusteko begiak kristalera itsatsi behar zituztela. Amaren hitzak ere gogoratzen ditu, ea nork garbituko duen arrainontzia. Eta aitarenak ere bai, arrainontzi hori garbitzen ez badute arrainak komunetik botako dituela. Eta, kostata bazen ere, nebak eta berak azkenean arrainontzia garbitzen zutela gogoratzen du, eta arrainak argi ikusten zirela lohitasun hura kristaletik kenduta, eta jaten ematen zietela, ez gutxi eta ez asko, baina agian gehiegi, arrainak lehenago edo beranduago ahoz gora topatzen zituztelako beti, hilik.

Errukitu da haiengatik. Eta amorrua eman dio. Errukia sentitzea ez da erraza A-rentzat. Ez daki zergatik gogoratu dituen orain arrain horiek, eta ez daki zergatik sentitu behar duen errukirik etxean gehienez bi edo hiru astez izandako animalia izengabe horiengatik.

Amarekin elkarrizketa bukatu, sofatik altxatu, eta omeprazol bat hartu du, biriken arteko hutsunea kanpoko laguntzarik gabe josten ikasten duen bitartean, gurasoen etxean arrainontzira botatzen zuten pastilla horietako bat bezala, eztarrian gora hazten ari diren likenak eteteko asmoz.

*Zizare-humus geruza bat eman lurrari udaberri hasieran eta uda hasieran. Lehen urtean zehar simaurra hilero behin aplikatzea iradokitzen da.*

*Adi! Post honetan ikasi [Nola egin zizare-humusa](#) eta hemen [Nola egin landarentzako etxeko ongarri organikoa](#).*

## ***kimaketa***

Kontua da ahuakateak sustrai bat bota zuela duela bi aste. Kontua da erridikulutik gertuko poza sentitu zuela sustrai mehe gris hori ahuakatearen hezurretik behera ateratzen ikusi zuenean, uretan arin hazten, edalontzian barna hedatzen, zorua ukitu nahi izango balu bezala. Sustraiak, edo hobe esanda, sustrai bat, sustrai hori, lurraren bila, lurrik ez dagoen berrerabilitako edalontzi horretan. Errukia sentitu zuen orduan ere. Eurendako lekurik topa dezakete sustraiak uretan? Lurraz betetako loreontzi batera aldatzeko tentazio bortitza sentitu zuen, baina ezin zen, oraindik ez, pazientzia izan behar zuen, eta ahuakateari bere modura hazten utzi. Bere modura, baina bere etxean.

Kontua da hurrengo egunetan sustraiak hazten jarraitu zuela, eta beste bi atera zitzaizkiola, eta uretan korapilatu zirela hiru sustraiak haien artean figura ulertezinak eratuz. Kontua da handik egun gutxitara zurtoin txiki bat ere atera zela, hezurraren beste aldetik, airerantz. Landarea agertu zen. Landarea bazetorren. Eta kontua da A-k zurtoin hura mozteko tentazioa izan zuela, ardura handia zetorkiola gainera, zurtoina mozteko gogoia eta desioa izan zuela. Ardura hori gainetik kentzeko bulkada. Zurtoina moztu eta ahaztea.

Eta ez zuen egin. Hori da kontua.

*Gutxi eta askotan kimatzea gomendatzen da. Kimaketa intentsu batek eragin negatiboa izan dezake hurrengo urteko zuhaitzaren hazkuntzan. Adi: ez kimatu inoiz ahuakatea euria egin ondoren. Honek zuhaitza ahuldu dezake.*

## ***ohiko izurrite eta gaixotasunak***

Ohean etzanda egon da tarte batez, pilulari barneak lasaitzen utziz, eta motel altxatu da eguzkia erabat desagertu den unean. X-ren mezu bat duela ikusi du, argazki bat, leku eder baten zatitxo bat. Berdeak distira egiten du argazkian, nahiko ilun badago ere, eta landare bustien usaina dakar.

X benetakoa da beti, baina leku hartan oraindik ere benetakoagoa bihurtzen da. A-k badaki, nahiz eta oraindik ez den inoiz bertan harekin egon. X haren haurtzarora itzultzen da, haren haurtzaro basatira. Bertan osatu zen, hezurretako hezetasuna leku horrek eman zion, eta ematen dio oraindik ere.

Haren leku kuttunean imajinatzeak irribarrea eragin dio A-ri. Mezuak ez dauka hitzik, muxu baten emotikonoa besterik ez, baina nahikoa da horrela. Leku hartan egiten duen erdia besterik ez du kontatzen X-k. Harentzat da beste guztia. Harentzat dira zauriak, azal urratua, ziztadak, soinuak, usainak eta euria. Harentzat pentsamenduak, zigarroak eta hontzen kantuak. Isiltasun horren atzean gordetzen ditu X-k haren funtsa, haren zama, haren pozak eta haren minak. Eta A-k ez dio gehiago galdetzen. Basatasuna ematen dion leku berdinarik ematen dio baretasuna, eta begi argiagoeekin itzultzen da beti, zertxobait zaharrago, agian, piztuta, indartsu.

Luze egon da argazkiari begira, xehetasunak gorde nahiko balitu bezala. X agertzearekin batera inoiz ezagututako lekuak agertu zaizkio bere geografian, inoiz irudikatutako jarduerak bere iruditegian, inoiz erabilitako hitzak bere hiztegian. Mundu horren aurrean lilura moduko bat sortu zitzaion eta hor geratu zaio, luzerako, omen. Kontuz ibiltzea beste gauza bat izan daitekeela ezagutu du, zaurien mina beste modu batera eraman daitekeela, sasien arteko bideak aberatsagoak direla, eta arriskua gertu izatea erakargarria izan daitekeela.

Arriskua, lehen bere buruarengandik hain urruti mantentzen zuen hori, gertu dabilen izakia bihurtu da orain, bere egunerokoan sartu da, ikusezina ia, baina presente. X-k arriskua txakur txiki bat bezala maneiitzen du, etengabe bilatzen du bere estimulua eta bere konpainiaz gozatzen du, hortzak erakusten dituenean azken segundora arte eskua kendu gabe. Beti kentzen du, baina. Arriskua erlatiboa da, beti. X haren burua zaintzen badaki, beti jakin izan du, eta ez du azalpenik emateko gogorik. Horrek A aztoratzen du, eta maitemindu ere bai. Arrotza zaion hori exotikoa bihurtu zaio, erakargarria bezain beldurgarria.

Legatza gogoratu du bat batean, eta erretzeko zorian zegoenean atera du labetik. Ez dauka itxura onik, baina afalduko du, edo saiatuko da, behintzat. Muxu baten emotikonoa bidali dio bueltan, eta sukaldeko mahai txikian eseri da plateraren aurrean. Sardexkarik ez du atera, ahozapirik ezta ere, edalontzirik ezta ere. Geldi-geldirik geratu da arrain ilun horren aurrean, barneko korapiloak sentitzen, eskuak non jarri ez dakiela, jatearen ekintza ahaztu izan balitzaio bezala. Biriken arteko hutsunea berriro ere zabaltzen ari zaiola sentitu du, ziztada txiki bat, sentsazio korapilatu bat urdailaren gaineko partean.

Trumoi baten zaratak astindu du, eta azkar zutitu da, leihora hurbilduz. Ekaitza dator. Sargori dago baina ez du euririk egingo, aspaldiko leloa, bere teoria hankaz gora.

Leihoaren ondoan zutik, kalean erortzen diren tanta lodiei begira, urdaila gaineko ziztada handitu zaio, arnasa eteteraino. Hezetasunean hazten eta ugaltzen da bizitza, baita barne izurriteak ere. Ez du zergatia ulertzen, ez du kezkarik sentitu nahi. Ez du X zaindu nahi, ez du pentsatu nahi noizbait zaindu beharko duenik ere. X-k ere ez du zaindua izan nahi, agian, seguruenik. Eta hala ere, edo horrexegatik, erruak kolpatzen du, trumoiak bezala. Zaindu esaten dio, zaindu zaitetz, nik ez zaitut etorkizunean zaindu nahi. Hori esaten dio, baina ez dio esaten. Hori ez du inoiz esaten, ez nago zu zaintzeko prest, ez naiz zure ondoan geratuko gaixotzen bazara, edo agian bai, baina ez dakit. Eta ez du ulertzen nondik datorkion kulpa hori, euri tantak bezala zorua indarrez kolpatzen duena. Kulpa, landareak hiltzen zaizkiolako, arrainak hiltzen zaizkiolako, bere burua zaindu nahi duelako besterik ez, eta batzuetan hori ere ez.

***Hostoetako kakalardoak, beldarrak, kukurutxak, armiarma gorria, hazietako gurgurioak eta hostoetako gurgurioak. Antracnosa, herdoila, pedunkuluaren eraztuntzea, hostoaren deformazioa, fruitu ustela eta "ahuakatearen tristura". Azken honek sustraiei eragiten die: adar altuak lehortzen dira, hostoek bere tonu berdea eta fotosintesarako gaitasuna galtzen dute, fruituak txiki bihurtzen dira eta azkenean zuhaitza hil egin daiteke.***

*Adi! Gaixotasunak tratatu eta aurreikusi! "Adimen Artifizialeko landare medikuak" segundo gutxitan landareen arazoak diagnostikatzen lagunduko dizu. Deskargatu [hemen](#) gure app berria.*

## ***sasoia*ren araberako neurriak**

Ahuakatea gogoratu bat-batean. Ur soberakin batek sustraiak usteltzea eragin dezake. Arratsaldean balkoira atera du eguzkia jaso zezan, zertxobait apal ikusten baitzuen azken egunetan, eta han geratu da, mugitu ezinik, euri jasaren azpian.

Azkar sartu du barrura, eta oihal batekin lur gaineko ura xurgatzen saiatu da. Hosto bi erori dira euriaren indarraren eraginez. Kontuz hartu eta zaborrontzira bota ditu. Gero loreontzia eskuetan geldi-geldirik geratu da egongelaren erdian, gauetan ahukatea non jarri behar den inon irakurri ez duela konturatuz. Sofaren ondoko mahaitxoan utzi du, mugikorraren ondoan.

Mezu bat dauka, X-ren beste argazki bat, hura, blai eginda. Eta barre egiten duten hiru emotikono. Eta “zer egingo diogu ba?” adieraziz besoak altxatzen dituen beste emotikono bat ere bai. Barre egiten duten beste hiru bidali dizkio bueltan, benetako irribarrea aurpegian.

Oinak hotz dauzka, baina ez ditu galtzerdiak jantzi nahi. Sukaldera hurbildu eta mahai gainean gogor geratu den legatza zaborrontzira bota du, penarik gabe.

Irekita jarraitzen duen leihoa ixtera hurbildu da. Jada ez du euririk egiten, baina kaleak bustita daude, hiria hezea. Arnasa sakon hartu du, erraz, hezetasunak birikak leundu balizkio bezala. X ekaitz azpian korrika imajinatu eta barre egin du, hura erabat bustirik eta bera etxean babesturik, lehor. Hezur eta odol ezberdineko bi izaki. Eta urdaila ere leundu zaiola konturatu da, eta gose dela, eta X-k bizitza bizitzeko modu bat aukeratu zuela aspaldian, eta bera berandu iritsi dela, edo beranduago, gauza bera, azken finean. Eta axola zaiola, asko, baina horrela dela. Eta hutsuneak irekiko zaizkiola, eta zaindu esaten jarraituko duela, bihotzetik, ezertarako balio ez badu ere, heredatutako hitza errepikatzen jarraituko duela. Baina ez dela urrunduko, momentuz, bukaera arte.

*Uda da eta landareak hil zaizkizu berriro? Ez ahaztu berriz zaintza lanik! Landareak zaintzea inoiz baino errazagoa da gure zaintzarako oroigarri inteligente eta pertsonalizatuekin. Deskargatu [hemen](#) gure app berria.*

## ***ohiko galderak***

Kontua da hiru egun lehenago ahukateari gurgurioak agertu zitzaizkiola hostoetan. Kontua da hostoak zulatu zizkiotela, berde kolore distiratsua galdu zutela eta indarrik gabe mantentzen zirela zurtoin txikiari helduta.

Kontua da zurtoina agertu eta egun gutxitara atera zitzaizkiola hostoak, eta A-k oso harro ikusi zituela hazten. Ez zekien norengatik zegoen harroago, bere buruagatik edo ahukatearengatik, baina ez zitzaion axola izan. Kontua da berehala agertu zirela gurgurioak, eta A-k zer egin bilatu zuela interneten, eta pozo bat erosi zuela auzoko drogeria batetan, baina ez zela pozoia botatzera ausartzen, akatsaren batengatik ahukatea ere akatuko ote zuen beldur.

Kontua da ekaitzaren ostean, leihoak itxi ondoren, hostoak eta arraina zakarrontzira bota ondoren, irribarre eta arnas egin ondoren, loreontzia hartu eta mahai gainean jarri zuela, eskularruak atera zituela konketa azpiko armairutik, guraize batzuekin pozoia kutxaren izkina moztu zuela eta lanean hasi zela, erakargarria bezain beldurgarria zitzaion bere iruditegi berriko jarduera hartan. Eta kontua da disfrutatu zuela. Eta kontua da bazekiela ahukatea udan landatzea ez zela ideia ona, baina hala nahi izan zuela berak. Eta sargori zegoela. Eta maitasun mezuak jaso eta bidali zituela. Eta kontua da maindire hezeetan lo egin zuela gau hartan ere, (bere bizitza berriko) basapizti guztiekin batera.

*Zer egin ahukatearekin fruiturik ematen ez badu?*

*Zer egin hezetasuna gehiegizkoa bada?*

*Zergatik hartzen dute hori kolorea nire ahukatearen hostoek?*

*Zer egin kakalardoek nire ahukatea erasotzen badute?*

*Noiz aldatu behar da ahukatea ur basotik loreontzira?*

*Zer egin ahukatea behar bezala hazten ez bada?*

*Orain ahukatea nola zaindu badakizula, gehiago jakitera animatzen zaitugu Etxeko Ekologia-ko beste gida batzuk irakurriz! Ezagutu [Izurriteei aurre egiteko trukoak](#) eta [Ahukatearen balio energetikoak eta errezetak](#).*